Fuente: Departamento de Interior del Gobierno Vasco. Dirección de Procesos Electorales y Documentación.

En las últimas elecciones Generales al Congreso de los Diputados celebradas el 20 de noviembre de 2011 se ha roto la paridad, no sólo en la composición del Ejecutivo del PP, también en la composición del propio Parlamento español, puesto que **la presencia de las diputadas no alcanza el 40%**, que es como las Leyes para la igualdad, tanto la española de 2007 como la vasca de 2005 definen la paridad: como una presencia equilibrada de los dos sexos, en la que ninguno de los dos sobrepase el 60% o se quede por debajo del 40%. Las mujeres representan el 36,3% de las diputadas del Congreso como resultado de unas elecciones en las que se ha aplicado el criterio de la paridad a la hora de confeccionar las listas electorales. Si nos fijamos en los diputados y diputadas que proceden de la C.A. de Euskadi, observamos que de las 18 personas elegidas tan sólo 2 son mujeres, eso nos dice mucho sobre el lugar que ocupan las mujeres en las listas electorales de todos los partidos.

2011ko azaroaren 20an egin ziren Diputatuen Kongresurako azken hauteskundeak eta bertan parekotasuna hautsi zen, bai PPrene gobernuan bai Espainiako Parlamentuan. **Emakumezko diputatuen kopurua ez da % 40ra heltzen**, nahiz eta berdintasunari buruzko Espainiako 2007ko legeak eta EAeko 2005ekoak parekotasuna honela definitu duten: bi sexuen kopuru orekatua; bi sexuetakoa batek ere ezin du gainditu % 60ko kopurua, ezta % 40tik behera geratu ere. Kongresuko emakumezko diputatuak % 36,3 dira, parekotasunaren irizpidea hauteskundeetako zerrrendak eratzeko bakarrik aplikatu baita. Euskal AEkoak diren diputatuak aintzat hartuta, gainera, aukeratuak izan diren 18 pertsonetatik 2 bakarrik izan dira emakumezkoak. Alderdi guztien hauteskundeetako zerrrendetan emakumeek zein toki hartzen duen erakusten digu datu horrek.



Iturria: Eusko Jauriaritzaren Herrizaingo Saila. Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritza.

Fuente: Departamento de Interior del Gobierno Vasco. Dirección de Procesos Electorales y Documentación.

¿Por qué, si los partidos acatan la Ley para la igualdad y presentan listas paritarias, el resultado de las elecciones no refleja la citada paridad? La respuesta la encontramos en los puestos que las mujeres ocupan en las citadas listas. En un informe realizado por Emakunde durante la campaña electoral de las elecciones municipales y forales de 2011 en la C.A. de Euskadi, se observó que, en el caso de las listas para las Juntas Generales, se había feminizado el sexto puesto de las listas y en las listas para conformar los plenos de los ayuntamientos prácticamente no había mujeres candidatas a la alcaldía. El resultado fue, por tanto, el previsible: tres diputados forales varones y tan sólo 22% de alcaldesas que gobiernan sobre el 11% de la población.


**Donde sí se recoge la paridad es en la composición del Parlamento Vasco** resultante de las elecciones autonómicas del 1 de marzo de 2009. De un total de 75 escaños, el 45,3% está ocupado por mujeres. Si atendemos a los diferentes partidos que componen la cámara, observamos que tanto el PNV como el PSE presentan una paridad en torno al 50%, siendo inferior en el caso del PP y de Aralar, si bien en éste último, la única mujer es a la vez la portavoz del grupo parlamentario.

Si en un ámbito como la política, donde se han establecido medidas para la paridad con carácter obligatorio, no ha sido posible todavía conseguir una paridad del 40-60, qué puede ocurrir en aquellos ámbitos donde la paridad no es una obligación y, muchas veces, ni siquiera un deseo.

Alderdiek berdintasunaren legea betetzen badute eta hauteskondeetara pareko zerrendak aurkezten badituzte nola izan daiteke hauteskondeetako emaitzek parekotasun hori ez islatzea? Emakumeek zerrenda horietan dituzten lanpostuek ematen digute erantzuna. Emakundek Euskal AEko 2011ko udal eta foru hauteskunde-kanpainari buruz egindako txostenean azaldu zen Batzar Nagusietarako zerrendetan seigarren postua emakumezko batekin bete zela eta udalbatzak eratze-ko zerrendetan ia ez zegoela alkate izateko emakumezko hautagairik. Horrenbestez, hauxe izan zen emaitza: gizonzko hiru foru diputatu, eta alkate guztien artean soilik % 22 emakumezkoak, biztanleen % 11 gobernatzan zutenak.

**Eusko Legebiltzarraren osaketan, aldiz, badago parekotasuna**, 2009ko martxoaren 1eko hauteskunde autonomikoak egin ostean. Guztira 75 aulki izanik, emakumezkoek horien % 45,3 osatzen dituzte. Legebiltzarrean dauden alderdi ezberdinak aztertuta, EAJK eta PSEk % 50 inguruko parekotasuna bete dute baina PPK eta Aralarrek parekotasun eskasagoa izan dute; gainera, azken alderdi honetan, emakumezko bakarra legebiltzarreko taldearen bozeramailea da.

Politikaren esparruan parekotasuna betetzeko derrigorrezko neurriak ezarri dira, baina oraindik ezin izan da 40-60eko parekotasuna lortu. Beraz, parekotasuna derrigorrezkoa ez den eta sarri horrelakorik lortu ere egin nahi ez den beste esparru batean zer gertatuko den pentsarazten digu honek.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila. Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritza.

Fuente: Departamento de Interior del Gobierno Vasco. Dirección de Procesos Electorales y Documentación.


### 3. ORGANIZACIÓN SOCIAL CORRESPONSABLE: CORRESPONSABILIDAD Y NUEVOS USOS DEL TIEMPO

### 3. ANTOLAKETA SOZIALA ETA ERANTZUKIDETASUNA: ERANTZUKIDETASUNA ETA DENBORAREN ERABILERA BERRIAK

Población ocupada de la C.A. de Euskadi por medidas de conciliación (%)

12

Euskal AEko landunak, bateratzeko neurrien arabera (%)



Iturria: Emakunde, 2011ko Zifrak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren datuak oinarritzat hartuta.

Fuente: Emakunde, Cifras de 2011 a partir de datos del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

La forma en que se ejerce la conciliación de la vida laboral, familiar y personal es una cuestión clave para entender muchos de los repartos, divisiones sexuales del trabajo, segregaciones profesionales y brechas salariales, en suma, para entender con mayor claridad algunas de las razones subyacentes a la desigualdad de oportunidades entre mujeres y hombres en nuestra sociedad.

El derecho a la conciliación ha sido una reivindicación del movimiento feminista que lo consideraba clave y fundamental para garantizar la incorporación plena de las mujeres al mercado laboral. Sin embargo, una vez reconocido el derecho a la conciliación en la legislación laboral y algunos convenios laborales, sin que por ello pueda hablarse de su ejercicio pleno, observamos que el acogerse a las medidas de conciliación acarrea en muchos casos efectos no deseados que incrementan la relación de desigualdad entre mujeres y hombres. Pero de la misma manera que somos capaces de detectar rápidamente el efecto no deseado de la conciliación, podemos deducir su rápida y posible solución. La razón por la que las medidas de conciliación tienen efectos no deseados en el mantenimiento de situaciones de desigualdad entre mujeres y hombres radica en la **feminización de la conciliación**, es decir, son las mujeres quienes, de forma mayoritaria, se acogen a las medidas de conciliación (permisos de maternidad, excedencias para cuidado, reducción de jornada y contratos parciales), eso redundará en menores ingresos, menores oportunidades de promoción profesional, inferiores cotizaciones, etc. y alimenta la brecha salarial.

La forma en la que se reparte el trabajo reproductivo incide muy directamente en la forma en la que se gestiona el trabajo

Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeko edo uztartzeko modua ezinbestekoa da lan askotan sexuaren arabera egindako banaketak, lanbideetako bereizketak eta soldaten arteko ezberdintasunak ulertu ahal izateko, hots, gure gizartean emakumeen eta gizonen artean ematen diren aukera ezberdintasunen atzean dauden arrazoi batzuk argiago ulertzeko.

Mugimendu feministak beti aldarrikatu du aipatu zereginak bateratzeko eskubidea; haien ustez eskubide hori funtsezkoa da emakumeak lan-merkatuan erabat sartzen direla bermatzeko. Alabaina, laneko legerian eta lan-hitzarmen batzuetan bateratzeko eskubidea aitortuta egon arren horrek ez du erabat betetzea ekarri. Izan ere, kasu askotan ikusten da bateratzeko neurriei heltzen diotenen nahi ez zuten ondorioak izan dituztela, eta horrek emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak areagotzen ditu. Bateratzeak nahi ez dugun ondorioa ekarri duela azkar antzemateko gai garen moduan, horrentzako konponbide azkarra bilatzeko gai ere bagara. Azaldu bezala, bateratzeko neurriek nahi ez diren ondorioak izaten dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egoeren mantentzean eta horren arrazoa **bateratzearen feminizazioa** da; beste modu batera esanda, batez ere emakumeek heltzen diete bateratzeko neurriei (amatasun baimenak, zaintzeko eszedentziak, lanaldiaren murrizketa eta kontratu partzialak) eta ondorioz diru-sarrera gutxiago dituzte, lanean gora egiteko aukerak murrizten zaizkie, gutxiago kotizatzen dute eta abar. Horrek guztiak soldaten arteko ezberdintasuna areagotzen du.

Lan erreproduktiboaren banaketak eragin zuzena du lan produktiboa kudeatzeko moduan. Kontratu mota ezberdinak azal-

jo productivo. Un ejemplo de ello lo tenemos en las diferentes formas contractuales y en cómo está altamente feminizada la contratación temporal, la de tiempo parcial o el trabajo sin contrato.

Un ejercicio de la conciliación corresponsable limitaría significativamente el efecto no deseado de desigualdad que hoy por hoy tiene la conciliación por su carácter exclusivamente femenino. Asumir la corresponsabilidad en la conciliación es un previo ineludible para avanzar en la igualdad. Medidas como los permisos de paternidad, iguales e intransferibles, son medidas que apuestan por la corresponsabilidad.

Pero la corresponsabilidad no debe darse únicamente entre mujeres y hombres. No es solamente una cuestión de solución personal o familiar, sino que debe darse en todos y cada uno de los ámbitos de la sociedad: el mercado, con la introducción de horarios racionales; el Estado, con la provisión de servicios sociocomunitarios y las familias, con reparto de tareas y una división del trabajo no sexista.

datuko horren adibide dira, baita aldi baterako kontratazioan, kontratazio partzialean edo kontraturik gabeko lanean gehienak emakumezkoak izatea ere.


Gaur egun bateratzeak, batez ere emakumeei dagokielako, sortzen duen ezberdintasun egoera hori nabarmen mugatuko litzateke erantzukizunak elkarbanatuko balira. Bateratzea lortu nahi bada eta horrela berdintasunerako bidean aurrera egin, aldez aurretik erantzukizunak banatu behar dira. Aitatasun baimen berdinak eta besterenezinak bezalako neurriek erantzukidetasunaren alde egiten dute.

Baina erantzukidetasuna ez da bakarrik emakumeen eta gizonen artean eman behar. Ez da soilik norberaren bizitzan edo familian konpondu beharreko arazoa; aitzitik, gizartearen esparru guzti-guztietara zabaldu behar da: merkatura, zentzuzko ordutegiak ezarri; Estatura, zerbitzu soziokomunitarioak eskainiz, eta familietara, zereginak banatuz eta lana gizonen eta emakumeen artean sexismorik gabe banatuz.

Tiempo medio social de la población de 16 y más años de la C.A. de Euskadi por actividad y sexo (hh, mm). 2008

13

Euskal Aeko 16 urteko eta gehiagoko biztanleen batez besteko denbora soziala, jarduera eta sexua aintzat hartuta (hh, mm). 2008



Iturria: Emakunde, 2011ko Zifrak, Eustaten denboraren aurrekontuei buruzko inkestako datuak oinarritzat hartuta. Fuente: Emakunde, Cifras de 2011 a partir de datos de la Encuesta de presupuestos del tiempo de Eustat.

Las mujeres dedican más tiempo que los hombres en las tareas domésticas y de cuidados a personas del hogar; asimismo, son ellas las que de forma absolutamente mayoritaria concilian su vida profesional y familiar si atendemos a quienes reducen su jornada laboral, quienes se acogen a excedencias para cuidados o quienes disfrutan de los permisos de maternidad; sin embargo, estas medidas no son para conciliar la vida profesional o la familiar con la personal, ya que las mujeres disponen de menos tiempo para disfrutar de su tiempo de ocio, como lo muestra el número de horas que mujeres y hombres dedican a actividades de ocio, tanto pasivo como activo. En suma, **las mujeres concilian vida profesional y familiar muchas veces a costa de su vida personal.**

Emakumeek gizonen baino denbora gehiago ematen dute etxeko lanak egiten eta etxeko pertsonak zaintzen; halaber, gehienbat emakumeak dira lana eta familia bateratzen dituztenak, lanaldia murrizten dutenak, norbait zaintzeko eszedentziak hartzen dituztenak edo amatasun baimenak hartzen dituztenak kontuan hartuz gero. Baina neurri horiek ez dira lana edo familia norberaren bizitzarekin uztartzeko, emakumeek denbora gutxiago baitute aisialdiaz gozatzeko; horren erakusgarri da emakumeek eta gizonen aisia pasibo nahiz aktiboari lotutako jarduerak egiten ematen duten ordu kopurua. Labur esanda, **emakumeek askotan euren bizitza pertsonalari kentzen diote lana eta familia bateratzeko denbora.**



#### 4. VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES: LAS MUJERES VÍCTIMAS DE MALTRATO

En un informe en el que se dedica un capítulo al análisis de la situación de desigualdad entre mujeres y hombres todavía existente en la C.A. de Euskadi y responsable de la situación de discriminación e injusticia, no puede faltar un apartado que analice la violencia ejercida contra las mujeres por el hecho de ser mujeres, es decir, la violencia de género, tal y como se ha definido jurídicamente por la Ley de medidas integrales contra la violencia de género de 2004 (Ley 01/2004). Dicha legislación limita su definición a la violencia ejercida en el ámbito de una relación sentimental, lo que limita su aplicación a la violencia ejercida por la pareja o expareja, si bien ha concretado la forma de recopilar datos y generar estadísticas para estudios comparados y longitudinales, al menos en España y también en la C.A. de Euskadi. Estos son los datos que vamos a analizar. Sin embargo, no podemos dejar de señalar que la violencia sufrida por las mujeres por el hecho de ser mujeres es una violencia que tiene su principal causa en la desigualdad estructural y cultural propia de una sociedad con fuertes raíces patriarcales donde perviven situaciones de dominio y de control en el establecimiento de las relaciones interpersonales, realidades más complejas y que trascienden muchas veces a las relaciones de pareja.

*Victimizaciones de mujeres por violencia de género, según tipo y Territorios Históricos. 2010*

13

#### 4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK

Euskal AEn emakumeen eta gizonen artean oraindik ezberdintasunak daude, eta horiek bereizkeria eta injustizia eragiten dituzte. Bada, hori guztia aztertzeke kapitulu oso bat hartzen duen txosten honetan ezinbestean prestatu behar izan da beste atal bat emakume izate hutsagatik emakumeen aurka ematen den indarkeria aztertzeke, hau da, genero indarkeria aztertzeke, horrela definitu baita juridikoki 2004. urteko genero indarkeriaren kontrako neurri integralen legean (01/2004 Legea). Lege horrek definizioa mugatzen du, sentimenduzko harreman batean gertatzen den indarkeriara, hain zuzen ere; eta orduan soilik aplikatu behar da bikotekideak edo bikotekide ohiak indarkeria erabiltzen duenean. Dena den, legean, azterlan konparatu eta luzetarakoetarako datuak biltzeko eta estatistikak egiteko modua zehaztu da, behintzat Espainian eta Euskal AEn. Datu horiek aztertuko ditugu. Baina era berean azpimarratu behar dugu emakumeek soilik emakume izateagatik jasaten duten indarkeriaren arrazoi nagusia sustrai patriarkal sendoak dituen gizarte baten egiturazko eta kulturari lotutako ezberdintasuna dela; gizarte mota horretan nagusitasuna eta kontrola ematen dira pertsonen arteko harremanetan, baita errealitate konplexuagoak ere, sarri bikoteen harremanetara hedatzen direnak.

**Genero indarkeriaren ziozko emakumeen biktimizazioak, motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2010**

|   | Euskal AE<br>C.A. de<br>Euskadi | Araba<br>Álava | Bizkaia      | Gipuzkoa     |
|---|---------------------------------|----------------|--------------|--------------|
| <b>Guztira / Total</b>  | <b>4.285</b>                    | <b>612</b>     | <b>2.366</b> | <b>1.307</b> |
| <b>Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria</b><br>Violencia ejercida por la pareja o expareja  | 3.238                           | 471            | 1.762        | 1.005        |
| <b>Familia barruko indarkeria (bikotekidearena edo bikotekide ohiarena izan ezik)</b><br>Violencia intrafamiliar (excepto la ejercida por la pareja o expareja) | 835                             | 106            | 485          | 244          |
| <b>Sexu askatasuna / Libertad sexual</b>  | 212                             | 35             | 119          | 58           |

**Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila.**  
Fuente: Departamento de Interior del Gobierno Vasco.

El número de victimizaciones por violencia de género supera al número de delitos cometidos puesto que las víctimas pueden interponer más de una denuncia. Según la Dirección de atención a víctimas de violencia de género del Departamento de Interior, tal y como se recoge en el Informe de 2010, las *victimizaciones* son las «ocasiones en las que las personas han sido objeto de un ilícito penal, a lo largo de un período, y que, como tal, han sido registradas por la Ertzaintza en los documentos policiales. Un ejemplo clarificador puede ser el caso de varias denuncias». Mientras que *víctimas* se define como «personas objeto de un ilícito penal, a lo largo de un período, y que, como tal, han sido registradas por la Ertzaintza en los documentos policiales», en este caso, sólo habría una víctima (Departamento Interior: 2010, pp. 29-30).

Los datos relativos a la libertad sexual se refieren a los delitos tipificados como tales en el Código Penal, cometidos por autores de fuera del ámbito familiar, en su mayoría agresiones

Genero indarkeriaren ziozko biktimizazioak, oro har, egiten diren delituak baino gehiago dira, biktimek salaketa bat baino gehiago jarri dezaketelako. Herrizaingo Sailaren Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren esanetan, 2010eko txostenean jaso bezala, *biktimizazioak* dira «pertsona batzuk epe jakin batean arau-hauste penal baten xede izan diren aldi kopurua, horrela erregistratu baditu Ertzaintzak polizia-dokumentuetan. Salaketa bat baino gehiago egotea izan daiteke horren adibide argia». Bestalde, *biktima* gisa definitzen dira «epe jakin batean arau-hauste penal baten xede izan diren pertsonak, horrela erregistratu baditu Ertzaintzak polizia-dokumentuetan». Kasu honetan biktima bakarra egongo litzateke. (Herrizaingo Saila: 2010, 29-30 or.).

Sexu askatasunari lotutako datuak Zigor Kodean horrela tipifikatzen diren delituei buruzkoak dira. Gehienetan sexu-erasoak eta -abusuak gertatzen dira, eta familiakoak ez diren


y abusos sexuales. Tanto las agresiones como los abusos sexuales implican ausencia de consentimiento; la diferencia radica en que la agresión implica violencia física.

pertsonek egiten dituzte. Bai sexu-erasoak bai sexu-abusuak baimenik gabe egindakoak izaten dira, baina bi termino horien arteko ezberdintasuna da erasoetan indarkeria fisikoa ere ematen dela.

Victimizaciones por violencia de género en la C.A. de Euskadi por tipo de violencia (%). 2010

14

Genero indarkeriaren ziozko biktimizazioak Euskal AEn, indarkeria motaren arabera (%). 2010



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila.  
Fuente: Departamento de Interior del Gobierno Vasco.

En 2010, en la C.A. de Euskadi se produjeron 4.285 victimizaciones de mujeres por violencia de género, que se correspondían con un total de 2.984 denuncias y 2.412 mujeres denunciadas (según el Área de análisis –DGRT– del Departamento de Interior). En el 76% de los casos, el agresor y la víctima estaban o habían estado unidos por un vínculo sentimental, manteniéndose así la tendencia de años anteriores que evidencia **que el riesgo de sufrir una agresión por violencia de género de manos de la pareja o expareja es mucho más elevado que el riesgo de sufrir otro tipo de agresiones.**

En 2011, un total de 60 mujeres murieron en España por violencia de género, dos de ellas en la C.A. de Euskadi. Los asesinatos son la manifestación más grave y dolorosa de la violencia que se ejerce contra las mujeres y son, a su vez, la muestra más visible de un grave problema social, la tozuda permanencia y manifestación de la violencia ejercida contra las mujeres con raíces profundas en patrones culturales que socializan en la desigualdad, en el sexismo, en la división sexual del trabajo, en la infravaloración del universo femenino, en el mito del amor romántico, en la sumisión y en la violencia como medio para la resolución de los conflictos. Debemos construir una sociedad que se fundamente en el respeto a la diversidad y en la igualdad.

2010. urtean, emakumeen 4.285 biktimizazio gertatu ziren genero indarkeriaren zioz Euskal AEn; ondorioz 2.984 salaketa jarri ziren eta 2.412 emakume salatzaile izan ziren (Herrizaingo Sailaren DGRT: Analisisen Atala). Kasuen % 76an, erasotzaileak eta biktimak sentimenduzko lotura zuten edo inoiz izan zuten, eta horrela aurreko urteetako joera mantendu da: **bikotekideak edo bikotekide ohiak genero indarkeriari lotutako eraso bat egiteko arriskua beste edozein eraso jasateko arriskua baino askoz handiagoa da.**

2011. urtean 60 emakume hil ziren Espainian genero indarkeriaren ondorioz; horietariko bi Euskal AEn hil ziren. Hilketak, emakumeen aurka egindako indarkeriaren adierazpen larriena eta mingarriena dira eta, era berean, arazo sozial larri baten erakusgarri argiena ere badira. Hilketak emakumeen aurkako indarkeriaren iraunkortasun eta agerpen tematiena dira, eta gizartea ezaugarri jakin batzuen arabera antolatzen duten kultura ereduak dituzte errotuta: ezberdintasuna, sexismoa, lanaren sexuaren araberako banaketa, emakumeen unibertsoaren gutxiespena, amodio erromantikoaren mitoa, mendetasuna eta indarkeria, arazoak konpontzeko bidea. Aniztasunaren errespetua eta berdintasuna oinarritzat hartzen dituen gizartea eratu behar dugu.

## 5. CONCLUSIONES

En este apartado del informe se ha pretendido realizar un análisis basado en una serie de datos para tratar de establecer si persiste la desigualdad de oportunidades entre mujeres y hombres en la C.A. de Euskadi. Lamentablemente, la respuesta sigue siendo que sí. Lo hemos constatado a partir de indicadores de Eustat relativos al acceso y control de una serie de recursos sociales, económicos y políticos; también a partir del análisis de la conciliación y de los usos del tiempo y, por último, desde los datos relativos a la violencia de género.

La interpretación de los datos nos revela que la desigualdad de oportunidades no es una cuestión aislada sino que es perfectamente posible argumentar de forma coherente y relacional las causas que llevan a que la diferencia entre ser hombre o mujer se construya finalmente como una desigualdad que conduce a situaciones de discriminación y, en algunos casos, de empobrecimiento y riesgo de exclusión social.

Existe una clara división sexual del trabajo que hemos observado en la feminización de la conciliación entre la vida profesional y familiar, que no la personal, porque las mujeres hacen uso de las medidas de conciliación para garantizar la atención y el cuidado del ámbito familiar y doméstico, pero sin que ello repercuta en un mayor tiempo para sí mismas; así lo veíamos recogido en los datos sobre ocio activo y pasivo.

La asunción por parte de las mujeres de la necesidad de la conciliación supone que son las mujeres las que, de forma mayoritaria, reducen sus jornadas, disfrutan de excedencias para el cuidado o trabajan a tiempo parcial, lo que explica, en parte, la diferencia que hemos observado en la disponibilidad de rentas personales y de rentas de trabajo. También hemos visto que la principal razón de inactividad declarada por las mujeres se debe a la asunción de las labores del hogar, mientras que en el caso de los hombres, la inactividad se explica por las situaciones de jubilación o prejubilación, razones bien distintas que enfatizan la división sexual del trabajo tanto en el trabajo productivo como en el reproductivo.

Pero no es sólo la feminización de la conciliación la que explica la desigualdad, existen raíces estructurales y culturales en el hecho de que mujeres y hombres disfruten de desiguales oportunidades en su vida profesional y personal. Los patrones culturales de nuestra sociedad nos ayudan a configurar nuestras identidades como mujeres y hombres desde las que se definen nuestros roles y papeles sociales. Este aspecto es importante para entender la segregación educativa y profesional que los datos también nos muestran. También explican por qué, a partir de dicha segregación, las actividades y profesiones ejercidas mayoritariamente por mujeres tiene menor valor social y económico.

Otros datos también nos han dado muestras de desigualdades presentes en nuestra sociedad; por ejemplo, la distinta presencia de las mujeres y los hombres en los ámbitos de decisión legislativo y ejecutivo, donde si bien se ha avanzado de manera significativa, en ocasiones todavía resulta difícil alcanzar la paridad en la representación.

Hemos constatado también que la violencia contra las mujeres es una clara manifestación de la desigualdad entre mujeres y hombres y de este modo debe ser interpretada, analizada y tenida en cuenta de cara a articular medidas para su prevención, atención y final erradicación. Los datos nos sitúan

## 5. ONDORIOAK

Txostenaren atal honetan datu jakin batzuk hartu dira kontuan azterketa egiteko, Euskal AEn oraindik emakumeek eta gizonak aurkera ezberdinak dituzten ezartzea izanik atalaren helburua. Zoritxarrez, erantzuna baiezkoa da orain ere. Baieztapen hori egiteko oinarritzat hartu ditugu baliabide sozial, ekonomiko eta politiko batzuen edukitzari eta kontrolari lotutako Eustaten adierazle batzuk; bateratzearen eta denbora-erabileren gainean egindako azterketa, eta, azkenik, genero indarkeriari buruzko datuak.

Datuak interpretatuz ikusten da aukera ezberdintasuna ez dela kontu isolatua. Gizon edo emakume izatearen arteko ezberdintasuna bereizkeria egoerak eta, batzuetan, pobretasun egoerak eta gizartean baztertuta egoteko arrisku egoerak dakartzan ezberdintasuna izatea eragiten duten arrazoiak koherentzia osoz argudia daitezke.

Lana argi eta garbi sexuaren arabera banatzen da, horrela gertatzen da lana eta familia batez ere emakumeek bateratzen dutelako. Baina ezin dugu bateratze horren barruan bizitza pertsonala sartu, emakumeek familia eta etxeko esparruaren arreta eta zaintza bermatzeko erabiltzen dituztelako bateratze neurriak, baina haien zat denbora gehiago hartu gabe. Horixe azaltzen dute aisia aktiboari eta pasiboari buruzko datuek.

Emakumeek onartu egiten dute esparru guztiak bateratu behar dituztela eta, ondorioz, batez ere haiek murrizten dute lanaldia, haiek hartzen dituzte norbait zaintzeko eszedentziak edo haiek egiten dute denbora partzalean lan. Egoera honek hein batean azaltzen du errenta pertsonalen eta lanaren errenten erabilgarritasunari lotuta eman den ezberdintasuna. Emakumeek jarduerarik ez egiteko arrazoi nagusia etxeko lanak egin beharra da; jarduerarik egiten ez duten gizon gehienak, aldiz, erretirata edo aurre-erretirata daude. Bien arrazoiak oso ezberdinak dira, eta lana sexuaren arabera banatuta dagoela erakusten dute, bai lan produktiboa bai erreproduktiboa.

Baina bateratzearen feminizazioa ez da bi sexuen arteko ezberdintasuna azaltzen duen bakarra; emakumeek eta gizonak lanean eta bizitza pertsonalean aukera ezberdinak edukitzea azaltzen duten egiturazko eta kulturari lotutako sustraiak daude. Gure gizarteko kultura ereduak emakume eta gizon bezala ditugun nortasunak eratzen laguntzen digute, eta nortasun hauek gizartean ditugun eginkizunak eta zereginak zehazten dituzte. Ideia hau garrantzitsua da datuek erakusten diguten heziketako eta laneko bereizketa ulertu ahal izateko. Eta, aipatu bereizketatik abiatuta, horregatik dute gizartean balio eskasagoa batez ere emakumeek egiten dituzten jarduerak eta lanbideek.

Beste datu batzuek ere erakutsi digute gure gizarte honetan ezberdintasunak ematen direla, hala nola: erabakiak hartzeko lege eta botere esparruetan emakume eta gizon kopuruak ez dira parekoak. Alderdi honetan egoerak hoberrantz egin du, baina oraindik batzuetan zaila da ordezkartzan parekotasuna ematea.

Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunaren adierazpena dela egiaztatu dugu; horrela interpretatu, aztertu eta kontuan hartu behar da gero egoera horri aurrea hartuko dioten, lagunduko dioten eta betiko ezabatuko duten neurriak ezartzeko. Datuen ara-

ante la evidencia de que la violencia ejercida sobre las mujeres es un verdadero problema social, visible, directo, impactante y reconocible.

Otras formas de desigualdad que llevan a otras formas de discriminación más sutiles, como la feminización de la pobreza o la precariedad en el ámbito laboral pasan más inadvertidas y quedan muchas veces ocultas por el «espejismo de la igualdad», al que se ha sumado la crisis económica y la jerarquía de prioridades que de esta se derivan en el discurso político y económico. Debemos mantenernos alerta, datos como los que genera periódicamente Eustat desagregados por sexos nos permiten tener indicadores objetivos para defender los argumentos políticos, ideológicos, económicos, sociales y sociológicos que reivindiquen la igualdad real y efectiva de oportunidades entre mujeres y hombres en la C.A. de Euskadi, reivindicación que, gracias a los datos, cobran credibilidad y, por tanto, plena legitimidad.

bera, emakumeen kontrako indarkeria gizartearen benetako arazoa da, agerikoa, zuzena, hunkigarria eta antzemateko modukoa.

Bereizkeria zorrotzagoak dakartzan beste ezberdintasun mota batzuk pobreziaren feminizazioa edo lan-kolokatasuna dira; hauek oharkabean pasatzen dira, sarri «berdintasunaren irudikeriak» estaltzen ditu, eta krisi ekonomikoaren ondorioz diskurtso politikoan eta ekonomikoan lehenetsun hierarkia ezartzen zaie. Adi egon behar dugu. Eustatek sexuak bereizita aldi berean behin kaleratzen dituen datuen bidez adierazle objektiboak bil ditzakegu eta, horrela, Euskal AEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra aldarrikatzen duten argudio politikoak, ideologikoak, ekonomikoak, sozialak eta soziologikoak defendatu. Datuei esker, aldarrikapen hori sinesgarriagoa eta, ondorioz, erabat bidezkoa izango da.

## BIBLIOGRAFÍA

- AURREKOETXEA, M.; ROYO, R.; SILVESTRE, M.<sup>a</sup> (2012). «El ámbito familiar: roles de género, socialización y cambio social» en Leonardo, J. (dir.), *Euskalherria en la Encuesta Europea de Valores*, Universidad de Deusto, Bilbao.
- ELIZONDO, A.; NOVO, A.; SILVESTRE, M.<sup>a</sup> (2007). La presencia de mujeres y hombres en las universidades españolas. *Aequalitas. Revista jurídica de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres*, N° 21, 2007.
- ELIZONDO, A.; MARTÍNEZ, E.; NOVO, A.; SILVESTRE, M.<sup>a</sup> (2009). «Women in political science: figures for Spanish universities», *European Political Science: 8 2009*. European Consortium for Political Research. 1680-4333/09 www.palgrave-journals.com/eps pp. 225-238.
- ELIZONDO, A.; NOVO, A.; SILVESTRE, M.<sup>a</sup> (2010). *Igualdad de mujeres y hombres en las universidades españolas* Madrid: Instituto de la Mujer, 2010.
- ELZO, J. y SILVESTRE, M.<sup>a</sup> (dirs.) (2010). *Un individualismo placentero y protegido. Cuarta edición de la Encuesta Europea de Valores en su aplicación en España*. Publicaciones de la Universidad de Deusto, Bilbao.
- DURÁN, M.<sup>a</sup> Á. (1998). *La ciudad compartida: conocimiento, afecto y uso*, CSIC, Madrid.
- EMAKUNDE – Instituto Vasco de la Mujer (2010). *V Plan para la igualdad de mujeres y hombres de la CAE. Directrices de la IX Legislatura*, Vitoria-Gasteiz.
- HERNES, H.M. (1996). «Las mujeres y el Estado del Bienestar: la transición de la dependencia privada a la dependencia pública», en Showstack Sasson, A. (ed). *Las mujeres y el Estado*, Vindicación, Madrid.
- LARRAÑAGA SARRIEGUI, M. (2011). «Tiempos de crisis: ¿hora de la economía de género?», en: *Crisis económica: análisis y alternativas desde el enfoque de género*, Curso de Verano organizado por Emakunde en los XXX Cursos de Verano de la UPV-EHU, Donosti, 29 y 30 de junio de 2011.
- NOVO, A. (dir.); ALMIRANTE, J.; BADIOLA, A. (2011). *Cifras 2011. Situación de mujeres y hombres en la CAE*, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer de Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- ROYO, R. (2012). *Maternidad, paternidad y conciliación en la CAE. ¿Es el trabajo familiar un trabajo de mujeres?*, Universidad de Deusto, Bilbao.

## BIBLIOGRAFIA

- AURREKOETXEA, M.; ROYO, R.; SILVESTRE, M.<sup>a</sup> (2012). «El ámbito familiar: roles de género, socialización y cambio social» Leonardo, J. (zuz.), *Euskalherria en la Encuesta Europea de Valores*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- ELIZONDO, A.; NOVO, A.; SILVESTRE, M.<sup>a</sup> (2007). La presencia de mujeres y hombres en las universidades españolas. *Aequalitas. Revista jurídica de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres*, 21. zk., 2007.
- ELIZONDO, A.; MARTÍNEZ, E.; NOVO, A.; SILVESTRE, M.<sup>a</sup> (2009). «Women in political science: figures for Spanish universities», *European Political Science: 8 2009*. European Consortium for Political Research. 1680-4333/09 www.palgrave-journals.com/eps 225-238 or.
- ELIZONDO, A.; NOVO, A.; SILVESTRE, M.<sup>a</sup> (2010). *Igualdad de mujeres y hombres en las universidades españolas* Madrid: Instituto de la Mujer, 2010.
- ELZO, J. eta SILVESTRE, M.<sup>a</sup> (zuz.) (2010). *Un individualismo placentero y protegido. Cuarta edición de la Encuesta Europea de Valores en su aplicación en España*. Deustuko Unibertsitatearen Argitalpenak, Bilbo.
- DURÁN, M.<sup>a</sup> Á. (1998). *La ciudad compartida: conocimiento, afecto y uso*, CSIC, Madril.
- EMAKUNDE – Instituto Vasco de la Mujer (2010). *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana. IX. Legegintzaldiko Arauak*, Vitoria-Gasteiz.
- HERNES, H.M. (1996). «Las mujeres y el Estado del Bienestar: la transición de la dependencia privada a la dependencia pública», Showstack Sasson, A. (ed). *Las mujeres y el Estado*, Vindicación, Madrid.
- LARRAÑAGA SARRIEGUI, M. (2011). «Tiempos de crisis: ¿hora de la economía de género?», en: *Crisis económica: análisis y alternativas desde el enfoque de género*, Emakundek antolatutako Udako Ikastaroa EHUko Udako XXX. Ikastaroen barruan, Donostia, 2011ko ekainaren 29a eta 30a.
- NOVO, A. (zuz.); ALMIRANTE, J.; BADIOLA, A. (2011). *2011ko Zifrak. EAEko emakumeen eta gizonen egoera*, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, Eusko Jaurilaritza, Vitoria-Gasteiz.
- ROYO, R. (2012). *Maternidad, paternidad y conciliación en la CAE. ¿Es el trabajo familiar un trabajo de mujeres?*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.